Gobierno de Navarra
Departamento de Educación
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PROBA. 2021**

*11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa*

2021/05/20

**MATEMATIKA**

**KALIFIKAZIOA**

**DEITURAK** ..............................................

**IZENA** ..............................................

**NANa/AIZ** ..............................................

**1-** Ebatz ezazu ondoko ekuazioa: $\frac{x}{2} + \frac{3x}{4} - \frac{5x}{6} = 15$

**2-** Soka baten erdia hartzen du Luisek. Karlosek gelditzen denaren erdia hartzen du;
Mariak gelditzen denaren erdia hartzen du; eta Karmenek gelditzen denaren
erdia hartzen du $\frac{2}{5}$. Azkenean 30 cm gelditu dira. Zenbat neurtzen zuen sokak hasieran?

3- Egin ezazu ondoko eragiketa, kalkulagailua erabili gabe

$$\left[1 + \frac{3}{1-\frac{1}{2}}\right] : \frac{1}{4}$$

4- Ebatz ezazu ondoko ekuazio sistema:

$$\begin{cases} \frac{x}{2} + \frac{y}{4} = 3 \\ x+2y = 12 \end{cases}$$

5- Sinplifika ezazu adierazpen hau:

$$\frac{25^2\ 7^3\ 9^2}{49^2\ 3^{-1}\ (-5)^2}$$ (berreturen propietateak erabiliz)

**6-** Luziak, Karmenek eta Sarak 344 € kobratu dituzte lan batengatik. Luziak 7 ordu egin ditu lanean, Karmenek 5 ordu eta Sarak 4 ordu. Zenbat kobratu beharko luke bakoitzak, egin duen lanarekiko proportzionalki?

**7-** 11 urteren ondoren, Luisen adina duela 13 urte zuen adinaren karratuaren erdia izanen da. Kalkula ezazu Luisen adina.

8- Laukizuzen baten aldeetako batek besteak baino 6 cm gehiago ditu.
Zeintzuk dira laukizuzenaren neurriak 91 c$m^2$-ko azalera badu?

9- Telebista batek 428 € balio zuen. Lehenbiziko beherapenetan % 20ko deskontua egin bazitzaion eta bigarren beherapenetan % 25eko deskontua egin bazen lehendik beheratutako prezioaren gainean:

a) Zenbat balio du orain telebistak?
b) Egin izan balitzaio % 45 eko deskontu bakarra, azkeneko prezioa berdina izanen zatekeen? Azal itzazu arrazoiak.

10- Kalkula ezazu "x"-ren balioa $\frac{36}{x}$ eta $\frac{x}{81}$ zatikiak baliokideak izan daitezen.